



BAZTANGO UDALA
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN

2019ko ILBELTZAREN 24ko OHIKO OSOKO BILKURA
SESIÓN PLENARIA ORDINARIA DE 24 DE ENERO DE 2019

Baztango Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2019ko ilbeltzaren 24ko 19:00etan, Baztango Udala Osoko Bilkuran bildu da ohiko bileran. Joseba Otondo Bikondoa alkate jauna buru dela, honako zinegotziak etorri dira: Juan Cruz Iriarte Bañez eta Maite J. Iturre Llano EH-BILDU taldekoak; Begoña Sanzberro Iturriria, Maria Carmen Iribarren Iribarren eta Maria Isabel Olave Ballarena, UPN taldekoak; Ruben Ciganda Sanz eta Joseba Moreno Videgain GEROA BAI taldekoak; Alejandro Martín Ibarra, BAZTAN AUZOLANEAN taldekoa; Florentino Goñi Tellechea eta Iñigo Iturralde Eliceche BAZTANGO EZKERRA taldekoa

Ez etortzea arrazoitu dute, Mikel Ortega Arraztoa EH-Bildu taldekoa eta Jose Javier Aguirre Azcarraga UPN taldekoa.

Idazkari lanetan Ainara Vélez Ara aritu da.

Alkatearen aginduz bilkura hasi da.

1.- 2018/11/22KO ETA 2018/12/27KO OHIKO BILKURAKO AKTA ONARTU.

Idazkariak jakitera ematen du lehenengo azaroaren 22ko akta onartu behar dela, gogoraraziz kontsulta bat utzi zela erantzun gabe. Kontsulta egin ondoren, aurreko idazkariak e du akta aldatzeko baimenik ematen, eta beraz, aktaren onarpena bozkatzea proposatzen du.

Alkateak bozkatzera deitu du, eta **2018/11/22ko akta onartzen** da, aldeko 8 botorekin (EH-Bildu, Geroa Bai, Baztango Ezkerra eta Baztan Auzolanean), kontrako 2 botorekin (UPN) eta abstentzio 1ekin (UPN).

2018/12/27ko abenduko akta bozkatzera deitzen da eta aho batez onartzen da.

En la Sala de Sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 19:00 horas del día 24 de enero de 2019, se reúne en sesión ordinaria el Pleno Municipal, presidido por el alcalde Joseba Otondo Bikondoa y con la asistencia de las siguientes concejales y concejales: Juan Cruz Iriarte Bañez y Maite J. Iturre Llano por el grupo EH-BILDU; Begoña Sanzberro Iturriria, María Carmen Iribarren Iribarren y María Isabel Olave Ballarena, por el grupo UPN; Rubén Ciganda Sanz y Joseba Moreno Videgain por el grupo GEROA BAI; Alejandro Martín Ibarra BAZTAN AUZOLANEAN; Florentino Goñi Tellechea e Iñigo Iturralde Eliceché por el grupo BAZTANGO EZKERRA.

Excusan su ausencia Mikel Ortega Arraztoa del grupo EH-Bildu y José Javier Aguirre Azcarraga del grupo UPN.

Actúa como secretaria Ainara Vélez Ara.

El alcalde da comienzo a la sesión.

1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ORDINARIA DE 22/11/2018 Y 27/12/2018.

La secretaria comenta que primero debe aprobarse el acta del 22 de noviembre, recuerda que se dejó pendiente una consulta, y que tras consultarlo con el anterior secretario, no da su permiso para cambiar el acta, por lo que se ha dejado como está, proponiendo votar la aprobación del acta.

*El alcalde llama a votar: **Se aprueba el acta de 22/11/2018 con 8 votos a favor (EH-Bildu, Geroa Bai, Baztango Ezkerra y Baztan Auzolanean) 2 en contra (UPN) y 1 abstención (UPN).***

Se llama a votar el acta de 27/12/2018 y se aprueba por unanimidad.

**2.- BAZTANGO UDAL PLANEKO
EGITURAZKO ALDAKETA PUNTUALA
ZIGAKO 5. POLIGONOKO 243
LURSAILEAN, BIKENDI LAKOSTA
HUARTEK SUSTATUA. HASIERAKO
ONESPENA**

Joseba Otondo: Honen inguruan hirigintzako batzordean hitz egin zela gogorarazten du eta zalantzarik dagoen galdetu.

Aho batez hasierako onespena onartzen da.

GALDE-ESKEAK

Begoña Sanzberro: Galdetzen du Baztan Marka sortu zenetik orain arte, zertan lan egin den edo zein ekintza eraman diren aintzinerara.

Joseba Otondo: Alde batetik bilerak egin dira, talde dinamikak sortzen saiatuz, bilkurak eginez 2-3 astero. Kontu horietako bat Baztan Markaren webgunea da, zeinaren lanak esleiturik dauden, formazio saioak barrenera begira egin dira eta ekimen ezberdinak tanteatzen ari dira udaberrirako. Patronatua funtzionatzea eta ikuspegi bateratasuna du helburu, horren haritik, otsaila alderako ateraldi bat egin behar da Frantziara, markaren garapenean oinarritua. Bestalde, Markaren erregistroa abian dela jakinarazten da.

Isabel Olave: Jakitera ematen du aurreko aktan ez zela bere eskaera hitzez-hitzekotasunean jaso, eta oraingoan errepikatzen du: "el grupo municipal UPN, en virtud de las potestades que le confiere el art 322.1.b, le ruega que encargue a la secretaria municipal o al departamento de administración local un informe específico sobre si la situación fáctica existente, interposición de una querrela contra su persona por interesado, le hace incurrir, a usted en un deber de abstención en los temas relacionados con el interesado, al menos en los que dieron motivo a la denuncia". Hitzez-hitz jasotzea eskatzen du, eskakizun bezala eta galdera bezala txostena eskatu den galdetzen du.

Joseba Otondo: Ez dela horrelako txostenik eskatu jakinarazten du, honen inguruko txostenik egitea ez baita eskatu, txostena egin beharra bada, eginen dela aipatuz, baina bere abstentzio beharra gai honetan ez dela derrigorrezkoa jakinarazten du.

**2.- MODIFICACIÓN PUNTUAL
ESTRUCTURANTE DEL PLAN MUNICIPAL
DE BAZTAN, EN LA PARCELA 243 DEL
POLIGONO 5 DE ZIGA, PROMOVIDA POR
BIKENDI LAKOSTA HUARTE.,
APROBACIÓN INICIAL.**

Joseba Otondo: Comenta que en la comisión de urbanismo se informó sobre este punto y pregunta si existe alguna duda al respecto.

Se aprueba por unanimidad la aprobación inicial.

RUEGOS Y PREGUNTAS

Begoña Sanzberro: Pregunta sobre las acciones y actividades en las que se ha trabajado desde la creación de la Marca Baztan y en qué se va a materializar.

Joseba Otondo: Por un lado se han realizado distintas reuniones intentando crear dinámicas de grupo, reuniéndose cada 2-3 semanas. Una cuestión es la creación de la web Marca Baztan, esas labores ya se están realizando, se han realizado unas sesiones de formación interna y junto a esto se están tanteando distintas iniciativas para si se pueden desarrollar a partir de primavera. Por ahora, se busca que el patronato funcione, una visión unificada y trabajar conjuntamente. Para febrero se está preparando una salida a Francia, para conocer el desarrollo basado en la marca. Por otro lado el registro de la marca está en marcha.

Isabel Olave: El ruego que no se ha recogido en la literalidad en el acta pasada, era "que el grupo municipal UPN, en virtud de las potestades que le confiere el art 322.1.b, le ruega que encargue a la secretaria municipal o al departamento de administración local un informe específico sobre si la situación fáctica existente, interposición de una querrela contra su persona por interesado, le hace incurrir, a usted en un deber de abstención en los temas relacionados con el interesado, al menos en los que dieron motivo a la denuncia". Solicita que el texto enviado para que se recoja como ruego. Como pregunta plantea si se ha solicitado el informe planteado. Reitera el ruego y vuelve a hacer la pregunta.

Joseba Otondo: Aclara que no se ha solicitado ningún informe sobre este asunto, que si es necesario hacer el informe se hará, que su abstención en este tema no es obligatoria.

Zuk egindako interpretazioa zurea baita, legeak ez diolako hori, erraza izanen baitzen, pertsona baten kontra salaketa jartzea, erabakietan parte hartzea saihestuz. Ezin dugu onartu interpretazio hau eta legeak ez dio hori.

Joseba Moreno: Galdetzen du ea H2 Gurea protokoloa aktibatu egin den pasa den egunetako euriengatik.

Joseba Otondo: Euriek ez dituztela arrisku neurriak gainditu jakinarazten du, sistema arrisku-prebentzioarena baita, sistema detekzio sisteman oinarritzen da. Sistema ez da aktibatu ez direlako neurriak gainditu.

Aztertzeke gai gehiagorik ez dagoenez, 19:20ean alkate jaunak bilkura amaitutzat eman du eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.

Que la interpretación que ella han hecho es una, pero que la ley no dice eso. Que sería fácil poner una denuncia contra alguien y conseguir que se abstenga de tomar decisiones. No admitiremos esta interpretación porque la ley no dice eso.

Joseba Moreno: *Pregunta si se ha activado el protocolo de H2 Gurea debido a las lluvias.*

Joseba Otondo: *Comenta que no han superado el nivel de riesgo, que el sistema existente es de detección de prevención de riesgos. No habiéndose activado por no superar los niveles.*

No habiendo más asuntos a tratar, a las 19:20 horas el señor alcalde levanta la sesión, de todo lo cual, como secretario, doy fe

ALKATEA
EL ALCALDE



IDAZKARIA
LA SECRETARIA

